



> Abesti tradizionalak, heziketa tresna



NAIZ+

«Aita, ama, zenbat urtekin ez-konduko naiz? Bat, bi, hiru, lau, bost...». Garaiak zerbait aldatu badira ere, letrak ez dira gehiegi aldatu. Lehen aipaturakoak soka saltoan aritzen diren umeen ahotsen maiz en-



tzuten dira oraindik ere. Bizkaiko Urtxintxa eskolak, baina, jolas egiteko abesti tradizionalak balio hezitzaile eta eraldatzaileen ikuspegitik landu nahian bidelagun hartu du Uluka musika taldea eta elka-

rrekin egin dute “Aita, ama” abestiaren bertsio berri hau. Grabaketan haur zein helduek hartu zuten parte eta familia eredu ezberdinak plaza-ratu dituzte, norberaren ezagutzei bide emanez. «Aizu, aizuz, zenbat kolore dakizkizu?», «Ama, ama, animalia hau da maite dudana», «aizu, aitona, zein da zuretzat janari ona?» tankerako galderak luzatu dizkiete abestian partaideei. Tertangan grabatu zuten bideo-klipa eta Lakuako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako proiektua da. Bizkaiko Urtxintxa eskola aisialdi trebakuntzarako eta sustertze soziokulturalerako erakundea da. 1986an sortu eta Astialdi Eskolarekin hasi zen. Gaur egun, hezitzaileak, gurasoak, begiraleak, irakasleak eta banakoak trebatzen dituz balioen hezkuntzan. Batez ere hezkuntza ez formalean aritzen dira, baina baita formalean ere. Eta trebakuntzarako eskaintza izateaz gain, haur, gazte zein helduei zuzendutako proiektuak ere dinamizatzen dituzte esku hartze zuzenaren bidez.



> Eta bat-batean errefuxiatu bihurtuko bazina?

«Hemen gertatzen ez delako ez uste inon gertatzen ez denik». Annur TV proiektuak honako bideoa sareratu du ume errefuxiatuen egoera zer-nolakoa den agertzeko. Bideoarekin hausnarketara gonbidatu nahi ditu herritarrak, gudetan murgildutako haur eta nerabeak zer-nolako haurtzarora kondatzen ditugun azaltzeko.



Facebooken zabaldutako bideoa ia mila aldiz izan zen partekatua 20 orduan. Hain justu, joan den asteburuan Siriako Kurdistango Al-Hol errefuxiatu gunera bidean ziren 29 haur hipotermiak jota hil ziren. Indarkeriatik ihesean, Siriako Kurdistango errefuxiatu gunehorretara 23.000 zibil iritsi dira azken bi hilabeteotan.